



**Hiztegíttoa**

**Hobeto irakurtzen laguntzeko**



<b>abade</b> 'apaiza'	«...Nafarroako erregearen idazkariaren eskutik lortutako Bloiseko hitzarmenaren zirriborroa igorri zion Errioxako <b>abadeari</b> ...»	(36)
<b>abaila</b> 'abiada'	«Gerraren <b>abaila</b> bizkortzen ari zen neurrigabe.»	(141)
<b>adeitsu</b> 'errespetuzkoa'	«Parisi buruz ere mintzatu zitzairen Xaho laborari <b>adeitsu</b> haiei.»	(106)
<b>afera</b> 'asuntoa, kontua, arazoa'	«...eta gainera parte hartu dugu Espainiaren <b>aferetan</b> , baita gure odola eman ere.»	(112)
<b>ageriko</b> 'nabarmena, begi-bistakoa'	«Pedro mariskalak iparraldera so egin zuen, eta giroaren aldaketa <b>agerikoaz</b> ohartu zen.»	(49)
<b>agramondar</b> 'nafar erregearen aldekoa'	«...era guztietako presioak egin zituen Nafarroako <b>agramondarren</b> agintari gorenak eta preziatuenak men egin ziezaion Katolikoari.»	(41)
<b>ahitu</b> 'amaitu, agortu'	«Anfontso VIII.aren xedeak, gainera, ez ziren Nafarroan <b>ahitzen</b> .»	(20)
<b>aintzat hartu</b> 'errespetatu, kasu egin, gogoan hartu'	«—Badakit, saiatu naiz hamaika aldiz, baina ez naute <b>aintzat hartzen</b> .»	(94)
<b>aitzinean</b> 'aurrean'	«...bi erresuma indartsuren <b>aitzinean</b> , ahultasun une batean, erresuma galtzen ahal zuen.»	(14)
<b>alaena</b> 'halakoa' (indargarria)	«—Zerri <b>alaenak</b> , ordainduko duzue!»	(220)
<b>alferiza</b> 'errege armadako burua' (Erdi Aroan)	«...Martin Iñiguez Agrakoa, erresumako <b>alferiza</b> ...»	(8)
<b>alta</b> 'hala ere, haatik'	« <b>Alta</b> , gerrate haren ondoren aliantza politika berriro aztertu behar izan zuen Antso erregeak.»	(14)
<b>amorratu</b> 'oso-osokoa, itsua'	«Zorionez, karlista <b>amorratua</b> zen topatu zuen gizona...»	(136)
<b>antigoala</b> 'antzinatea'	«Erljioarekiko errefusaz gain, sistema berriak errotik erasotzen zien lapurtarrek <b>antigoaletik</b> defendatu zituzten antolaketa moduei...»	(68)
<b>antsia</b> 'gogo bizia, urduritasuna'	«...eta hurrengo egun eta asteetan ere horrela ibili zen, <b>antsia</b> handiz (...) dena utzi eta alde egiteko tentaturik.»	(144)
<b>apaiztu</b> 'apaiz bihurtua, apaiz itxurakoa'	«Deabru <b>apaiztuaren</b> fama, berriz, liberalen artean.»	(142)
<b>apezpiku</b> 'obispoa'	«...Aita Santuak berak sinatutako bulda jaso zuen, Gartzia <b>apezpikuaren</b> eskutik...»	(12)
<b>arpilatu</b> 'lapurtu, ostu'	«Aetzak, berriz, preso hartu zituzten gaztelarrek Aurizberrin, haran horretan sartu eta ahal zutena <b>arpilatu</b> ostein.»	(50)
<b>arranditsu</b> 'ikusgarriak, handikeriazkoak'	«Joan zen mariskala Gaztelako erregearen aurrera, eta ospakizun <b>arranditsuetan</b> , eskuan muin egin zion...»	(40)
<b>arrapostu</b> 'ihardetsi, erantzun'	«—Zu baino zuriagoa ziur baietz, mairu halakoa! — <b>arrapostu</b> egin zion Xahok...»	(111)
<b>artadi</b> 'arte basoa' (encinar)	« <b>Artadi</b> handi batean sartu zen...»	(129)
<b>artean</b> 'oraindik' (irag.)	«Pedro mariskalaren gizonak Pirinioen ipar hegian ziren, <b>artean</b> Auñamendiak gurutzatu gabe.»	(49)
<b>ataka</b> 'estualdia, tentsio egoera, kinka larria'	«Gustukoa zuen izarrei begira pentsamenduei <b>ataka</b> irekitzea...»	(70)
<b>atxikimendu</b> 'lotura, aldeko jarrera'	«Amaren esnetik jaso zuen sentimendua zen foruen eta Euskal Herriaren aldeko <b>atxikimendua</b> .»	(128)
<b>auñamendi</b> 'Pirinioak'	«...argi handiko egunetan, oskarbi zenean, <b>Auñamendietaraino</b> hel zitekeen paisaiaren magia.»	(9)



<b>babarrun</b> 'indaba'	«...afaltzeko zopak eta lekaleak jaten zituzten, <b>babarrunak</b> eta dilistak ohiki.»	(118)
<b>bailitzan</b> 'balitz bezala'	«Trebiñok soilik eutsi zion, irla bat <b>bailitzan</b> , arrotzek eragindako itsasoaren erdian.»	(25)
<b>baliatu</b> 'aprobetxatu'	«...Gaztelako Gortean Fernando erregea hil zenetik zegoen ezegonkortasuna <b>baliatzeko</b> .»	(48)
<b>balizko</b> 'posiblea, litekeena'	«Nafar erregearen eta Abu Jakob enperadore mairuaren alabaren arteko <b>balizko</b> ezkontzaren zurrumurrua ahoz aho zebilen...»	(11)
<b>barrena</b> 'zehir, gaindi'	«Larrun mendiraino igo ziren, Altxangatik <b>barrena</b> . Elur ugari zegoen gailurrean...»	(79)
<b>bazka eman</b> 'jaten eman'	«Hala ere, ordu Erdiko bisita batek bi asteo <b>bazka ematen</b> zion Gloriari.»	(225)
<b>bederen</b> 'behintzat, behinik behin'	«— Bai, jauna, posible balitz <b>bederen</b> .»	(110)
<b>behinik behin</b> 'behintzat, bederen'	«Bizirik izanen al zen <b>behinik behin</b> ... Pentsamenduen zurrumbiloak logura ekarri zion...»	(90)
<b>bere onetik atera</b> 'amorratu, sutan jarri'	«Europar liberal eta absolutisten artean zegoen banaketaren gatazkan kokatzen zuten karlistada, eta horrek <b>bere onetik ateratzen</b> zuen Xaho...»	(100)
<b>bermatu</b> 'garantizatu, ziurtatu'	«...mendeetan zehar gure independentzia <b>bermatu</b> duten tresnak deusezteak, ekarri du gerra odoltsu hau Nafarroara.»	(112)
<b>berri</b> 'oraintukoa'	«Bidasoara hurbildu ziren matxinatu <b>berriak</b> , eta ibaia gurutzatzean hasi ziren komeriak.»	(137)
<b>biarnera</b> 'Biarriko hizkera, bearnesa'	«Hizkuntza arrotzean ari ziren, batzuk <b>biarneraz</b> , beste batzuk frantsesez.»	(89)
<b>biarno</b> 'Iparralde ondoko lurraldea'	«Ekialderantz, <b>Biarnoko</b> zelaietan sartua zen ordurako Maria eta Rose zeramatzen gurdia.»	(88)
<b>bizkar-zorro</b> 'motxila'	«...une hartan bertan sorbalda gainean kilo askotako <b>bizkar-zorroa</b> paratu baliote bezala.»	(114)
<b>bulda</b> 'Aita Santuaren agiria (agindua, beinena)'	«...Aita Santuak berak sinatutako <b>bulda</b> jaso zuen, Gartzia apezpikuaren eskutik...»	(12)
<b>buru</b> 'handik eta..., garrenean'	«Bi kilometro eskasen <b>buru</b> , han ageri zen Lesaka (...). Bortizirietako herririk ederrena zen, inondik ere.»	(109)
<b>danbateko</b> 'kolpe gogorra'	«...olatu bortitz bakoitzaren amorruren <b>danbatekoei</b> behar bezalako erantzuna ematen asmatu zuten.»	(17)
<b>deliberatu</b> 'erabaki'	«Hego haize zakarra zebilen, eta barrenera itzultzea <b>deliberatu</b> zuten.»	(9)
<b>delibero</b> 'erabakia'	«Sakon aztertu eta gogoeta egin beharreko <b>deliberoa</b> zen.»	(10)
<b>deportatu</b> 'erbesterratu, deserriratu'	«— Ez dakigu zuzen, baina uste dut agindu bat dagoela Parisen Sara, Azkain eta itsasuar guztiak <b>deportatzeko</b> .»	(84)
<b>deserri</b> 'erbestea, atzerria'	«...Gaztelako lautada isiletan barneratu ziren gatibuak, galsoro amaigabeetan, <b>deserrirantz</b> .»	(52)
<b>desmasia</b> 'gehiegikeria'	«...hara iristen saiatu zen Antso, bere kasa, bere eskuekin mendekatzeko errege hark egin zion <b>desmasia</b> .»	(32)
<b>despotismo</b> 'agintarien gehiegikeria'	«Asko pentsatzen zuen munduaren norabide berrian, <b>despotismoa</b> berdintasunari atea irekitzen ari zitzaion munduaren norabide berrian.»	(98)
<b>deus</b> 'ezer'	«Jatekoa eta edatekoa eskaini iezaiezu, nahi adina, ez dakiela <b>deus</b> falta.»	(8)
<b>dezente</b> 'asko, nahikoa, franko'	«Sukarra izaten zuen goiz eta gauetan, eta pisu <b>dezente</b> galdua zuen.»	(93)



<b>dilista</b> 'lenteja'	«...afaltzeko zopak eta lekaleak jaten zituzten, babarrunak eta <b>dilistak</b> ohiki.»	(118)
<b>dohain</b> 'gaitasuna'	«—Gerrarako zure <b>dohain</b> eta kemena behar ditugu, errege...»	(18)
<b>dolor</b> 'gaiztoa, bilaukeriazkoa'	«...lau gizona kok emakume gazte bat bahitua zuten asmorik zekenarekin (...) Nafarroa Behereko lurretan egiten ari ziren sarraski <b>doilorren</b> hari berean.»	(39)
<b>egitismo</b> 'proiektua, plana'	«...aurrera egin zuen estatutu bateratuaren <b>egitismoak</b> , Lizarran, bere herrian...»	(162)
<b>egotzi</b> 'bota, kanporatu'	«...Nafarroako erregea eliza katolikotik <b>egozten</b> zuena.»	(41)
<b>ekidin</b> 'zerbaiti itzuri egin, zerbait	«...iraultzaren aurkako espioitza eta lana egitea leporatzen zitzaie, eta hori <b>ekiditeko</b> , herritar guztiak deportatzeko galdegiten zieten.»	(76)
<b>elkar</b> 'bata bestea'	« <b>Elkar</b> agurtu zuten, eta etxera sartu zen Gloria.»	(195)
<b>emari</b> 'kopurua'	«Neguaren bihotz-bihotzean izanda, ur <b>emari</b> handia zekarren errekek.»	(79)
<b>eragindako</b> 'probokatutako'	«Trebiñok soilik eutsi zion, irla bat bailitzan, arrotzek <b>eragindako</b> itsasoaren erdian.»	(25)
<b>erran</b> 'esan'	«...eta egunotan Leitzan ote dauden <b>erran</b> didate.»	(115)
<b>errefusa</b> 'ukapena, uko egitea'	«Erljioarekiko <b>errefusaz</b> gain, sistema berriak errotik erasotzen zien lapurtarrek antigoaletik defendatu zituzten antolaketa moduei...»	(68)
<b>errefusatu</b> 'uko egin, ez onartu'	«...baita karlisten Estatu Gorenean esku hartzeko aukera ere. Apaizak, ordea, <b>errefusatu</b> egin zuen eskaintza.»	(145)
<b>errekete</b> 'militar karlista'	«Karlistek 8.000 <b>errekete</b> armaz prestatu zituzten ordurako Nafarroan, konpainietan bildurik.»	(160)
<b>errenditzeaz</b> 'errenditzeko zorian, puntuan'	«...eta Garazi <b>errenditzeaz</b> zen atzo Joan erregearen aitzinean.»	(50)
<b>erreparatu</b> 'begitu, behatu, so egin'	«...etengabe erortzen ziren malutei <b>erreparatu</b> zien, pentsakor.»	(50)
<b>errieta egin</b> 'agiraka egin, haserre hitz egin'	«Del Olmo jenerala heldu zen, eta <b>errieta egin</b> zion kapitainari, han zain egoteagatik.»	(141)
<b>erruki</b> 'gupida'	«Bi aldeek egunero hiltzen zituzten arerioak, inolako <b>errukirik</b> gabe.»	(101)
<b>esamesa</b> 'zurrumurrua'	«...Nafarroan ez ezik inguruko erresumetan ere entzuten ziren mairuen erregearen alabarekiko ustezko loturaren inguruko <b>esamesak</b> .»	(8)
<b>eskumikatu</b> 'fededunen taldetik kanporatu'	«Zer espero zezaketen Aita Santuak lehenago edo geroago <b>eskumikatu</b> egingo zuen erregeaz?»	(21)
<b>euri jasa</b> 'zaparrada handia'	« <b>Euri jasek</b> lur guztia mugitua zuten...»	(137)
<b>eusten ahal diogu</b> 'euts diezaiokegu'	«—Zenbat denboran <b>eusten ahal diogu</b> Gasteizi?»	(21)
<b>ezegonkortasun</b> 'egoera gorabeheratsua'	«...Gaztelako Gortean Fernando erregea hil zenetik zegoen <b>ezegonkortasuna</b> baliatzeko.»	(48)
<b>ezen</b> 'ze, zeren' (lotura hitza)	«Hain bizi zen kezkatuik (...) <b>ezen</b> , iruditzen baitzitzaion (...) hobeki aurre eginen ziela...»	(9)
<b>ezkutatu</b> 'ostendu'	« <b>Ezkutatu</b> ezin zuen irribarre maltzurra azaleratzen zitzaion, haserre plantaren atzean...»	(37)
<b>ferekatu</b> 'laztandu'	«...tristurak batzen zituen hirurak une hartan. Autotik irteten, eta lainoak <b>ferekatu</b> zituen, umel, isil, bare.»	(230)




<b>frantximenta</b> 'frantsesa' (mespretxuzkoa)	«Egoera horrek sutan jartzen zuen, bere herria arrotzek umiliatua ikustea (...) <b>frantximentak</b> nagusi alde batean, pesetero kristinoak bestean.»	(106)
<b>gailur</b> 'tontorra'	«Larrun mendiraino igo ziren, Altxangatik barrena. Elur ugari zegoen <b>gailurrean...</b> »	(79)
<b>galdegin</b> 'eskatu'	«.....iraultzaren aurkako espioitza eta lana egitea leporatzen zitzairen, eta (...) herritar guztiak deportatzeko <b>galdegiten</b> zieten (...). Herria husteko alegia.»	(76)
<b>galtzen ahal zuen</b> 'gal zezakeen'	«...bi erresuma indartsuren aitzinean, ahultasun une batean, erresuma <b>galtzen ahal zuen.</b> »	(14)
<b>gatibu</b> 'preso, atxilo'	«Agindu berri bat eman arte, errepublikaren esku zaudete, <b>gatibu.</b> »	(85)
<b>gertu</b> 'prest'	«Altxamenduari berriz ekiteko <b>gertu</b> ziren guztiak.»	(137)
<b>gibel</b> 'atzea'	«...aitarekin batera makila eskuetan hartuta behien <b>gibelean</b> igarotako uneak, edota (...) sagarrondoetara igotzeko egindako makina bat saio.»	(77)
<b>gudaroste</b> 'armada'	«1197ko maiatzean Gaztelako eta Aragoiko <b>gudarosten</b> eraso pairatu zuen Nafarroak.»	(13)
<b>hagitz</b> 'asko, oso'	«...eta horrek <b>hagitz</b> zaildu zuen bi gotorleku nafarren arteko harremana.»	(62)
<b>haize ufada</b> 'haize kolpea, indartsua'	«Soilik noizbehinkako <b>haize ufadek</b> apurtzen zuten isilpe paregabea.»	(127)
<b>halakoa</b> 'alaena' (indargarria)	«—Zu baino zuriagoa ziur baietz, mairu <b>halakoa!</b> —arapostu egin zion Xahok...»	(111)
<b>harrabots</b> 'astrapala, zarata handia,	«Tabakoaren keak eta <b>harrabotsen</b> indar eta oihartzun gero eta handiagoak astuan eta lausoa bihurtzen zuten ostatu barruko giroa.»	(112)
<b>hausnarrean</b> 'gogoetatzen, pentsakor'	« <b>Hausnarrean</b> egin zuen mendian gorako bidea.»	(176)
<b>hautu</b> 'aukera'	«Umiliagarria iruditu zitzaion zaindari arrotzei bere nortasunaren berri eman behar izatea (...) baina zer erremedio, eman beste <b>hauturik</b> ez zuen.»	(102)
<b>hegi</b> 'aldea, alderdia'	«Pedro mariskalaren gizonak Pirinioen ipar <b>hegian</b> ziren, artean Añamendiak gurutzatu gabe.»	(49)
<b>hezurretan egon</b> 'hezur hutsean, argal-argal'	«Belaunikatu eta esku artean hartu zuen umea. <b>Hezurretan zegoen,</b> eta udazkenean zuhaitzetik erortzen den orbelaren pisua zuen.»	(93)
<b>hits</b> 'tristeia'	« <b>Hitsa</b> zen giroa Iruñean.»	(170)
<b>hitzarmen</b> 'ituna, akordioa'	« <b>Hitzarmen</b> sendoa nahi luke eta, horregatik, haren alaba Jazaira eskaintzen dizu, emazte har dezazun.»	(9)
<b>hondarretik aitzina</b> 'bukaeratik aurrera'	«1793ko urtearen <b>hondarretik aitzina</b> , Euskal Herriko mutil gazte ezkongabe guztiak armadara joateko deitu zituzten...»	(80)
<b>husturik</b> 'pot eginda, neka-neka eginda'	«Maria ohean zegoen, egindako ahaleginak <b>husturik.</b> »	(73)
<b>igorri</b> 'bidali'	«...Nafarroako erregearen idazkariaren eskutik lortutako Bloiseko hitzarmenaren zirriborroa <b>igorri</b> zion Errioxako abadeari...»	(36)
<b>ihar</b> 'lehor-lehorra'	«Belar <b>iharretan</b> sua bezala zabaldu zen komunitateen aldeko mugimendua Gaztelan zehar...»	(56)
<b>ika-mika</b> 'eztabaida'	« <b>Ika-mika</b> eta kalapita gogorak izan ziren Frantziako armadako buruaren eta agramondar buruzagien artean egun haietan...»	(59)
<b>ilunabar</b> 'iluntzea, ilundea'	«Jean heldu zen <b>ilunabar</b> batean.»	(93)
<b>inondik ere</b> 'zalantza barik, duda gabe'	«Bi kilometro eskasen buru, han ageri zen Lesaka (...). Bortizieretako herririk ederrena zen, <b>inondik ere.</b> »	(109)



<b>irakindegi</b> 'bolborategia'	«...Iberiar penintsula kristautasunaren <b>irakindegi</b> bihurtua zen 1212ko udaberri hartan.»	(31)
<b>izerdi patsetan</b> 'izerditan blai, busti-bustirik'	«...udaltzainaren aurpegia <b>izerdi patsetan</b> ikusirik eta pitin bat kezkatu rik.»	(167)
<b>izkin egin</b> 'itzuri, ekidin, libratu'	«Hurrengo goizean, munduko arrisku guztiei <b>izkin eginez</b> , Errialdera itzuli zen.»	(130)
<b>jakinarazi</b> 'kontatu'	«...momentuz ez zion <b>jakinaraziko</b> erabakia Abu Jakob enperadoreari, zuhur jokatu nahi baitzuen, zer gerta ere.»	(11)
<b>kalapita</b> 'sesioa, eztabaida garratza'	«Ika-mika eta <b>kalapita</b> gogorak izan ziren Frantziako armadako buruaren eta agramondar buruzagien artean egun haietan...»	(59)
<b>karrika</b> 'kalea'	«Herri osoa <b>karriketara</b> atera zen, afari ordua izan arren.»	(113)
<b>kazkabar</b> 'inetasia, txingorra, harria'	«Eguraldia ezin okerragoa zen: <b>kazkabarrak</b> latz astintzen zuen...»	(137)
<b>kemen</b> 'ausardia, bipiltasuna'	«—Gerrarako zure dohain eta <b>kemena</b> behar ditugu, errege...»	(18)
<b>komeriak</b> 'gorabeherak, arazoak'	«Bidasoara hurbildu ziren matxinatu berriak, eta ibaia gurutzatzean hasi ziren <b>komeriak</b> .»	(137)
<b>kozkortu</b> 'hazi'	«Rose <b>kozkortzen</b> ari zen ordurako. Lehenengo hitzak egiten zituen jadanik...»	(75)
<b>kuriositatez</b> 'jakin-minez'	«Aitzinera egin zuen Xahok. Jende artean sartu ahala, <b>kuriositatez</b> beterik, inguruan suma zitekeen guztiari erreparatzen zion.»	(102)
<b>laborari</b> 'nekazaria'	«Parisi buruz ere mintzatu zitzairen Xaho <b>laborari</b> adeitsu haiei.»	(106)
<b>lagun hurko</b> 'hurbilekoa' (prójimo)	«Nire <b>lagun hurko</b> bat, berriz, Pierre, fusilatu egin zuten, jendarmeengandik alde egiten saiatzeagatik.»	(105)
<b>laiko</b> 'ez-erlijioso'	«Aita Santuak Elizaren egituretatik kanpo jarri zituen Frantziako Konstituzio <b>laikoa</b> onartu zuten apaiz guztiak.»	(71)
<b>lauso</b> 'lainotua'	«Tabakoaren keak eta harrabotsen indar eta oihartzun gero eta handiagoak astuna eta <b>lausoa</b> bihurtzen zuten ostatu barruko giroa.»	(112)
<b>lekale</b> 'lekadunen alea'	«...afaltzeko zopak eta <b>lekaleak</b> jaten zituzten, babarrunak eta dilistak ohiki.»	(118)
<b>lokatz</b> 'basatza, basa biguna'	«Bidean gora abiatu ziren, <b>lokatz</b> artean toki askotan.»	(107)
<b>lur franko</b> 'irekiak, jabe bakoak'	«...haien lurrak murriztu eta <b>lur frankoak</b> , erregearen lurrak, zabaltzen ari zirelako pitinka-pitinka, Europa osoan...»	(10)
<b>maiorazko</b> 'heredentzia'	«...herri lurrak deuseztatu eta jabego pribatua jartzen zuen indarrean, eta <b>maiorazkoa</b> bertan behera utzi nahi zuen...»	(68)
<b>maiz</b> 'sarri, askotan'	«Errekaondoenetik <b>maiz</b> pasatzen ziren Espainiako armadako soldaduak, euskaldunak gehienak.»	(77)
<b>makina bat</b> 'hainbat, pila bat'	«...aitarekin batera makila eskuetan hartuta behien gibelean igarotako uneak, edota (...) sagarrondoetara igotzeko egindako <b>makina bat</b> saio.»	(77)
<b>malapartatu</b> 'madarikatua'	«Moztu diezaiotela burua bihar bertan, Donibane Lohizuneko herriko plazan, jende guztiek ikus dezaten <b>malapartatua</b> .»	(81)
<b>maltzur</b> 'azpikeriazkoa, faltsua'	«Ezkatatu ezin zuen irribarre <b>maltzurra</b> azaleratzen zitzaion, haserre plantaren atzean...»	(37)
<b>maluta</b> 'elur zatitxoa'	«...etengabe erortzen ziren <b>malutei</b> erreparatu zien, pentsakor.»	(50)
<b>marmarra</b> 'haserre, kexuzko hizketaldi ez ozena'	« <b>Marmarraren</b> artean, soldadu batek mespretxu keinuz esana aditu zuen Xahok...»	(111)




<b>men egin</b> 'obeditu'	«...Nafarroako beste hainbat jauntxok bezala, Logroñora joan, eta errege berriari <b>men egiteko</b> .»	(40)
<b>merinalde</b> 'merindadea, lurralde barrutia'	«...nekazariak prestatzen ari ziren <b>merinalde</b> guztian.»	(169)
<b>miatu</b> 'ikertu, arakatu'	«Paperak <b>miatu</b> ostean, bere bidaiaren inguruko asmoei buruz galdetu zioten Xahori...»	(109)
<b>mikaztasun</b> 'garraztasuna, desatsegina'	«...onak ziren karlisten eta jeltzaleen arteko harremanak. Gaiarreko bileratik aitzina, ordea (...) enfrontamendu eta <b>mikaztasun</b> punturaino heldu arte.»	(163)
<b>mikelete</b> 'Gip. Diputazioko milizia kidea'	«...Ernialdeko apaiza salatu egin zuten Tolosako <b>mikeleteen</b> kuartelean...»	(127)
<b>momentuz</b> 'oraingoz'	«... <b>momentuz</b> ez zion jakinaraziko erabakia Abu Jakob enperadoreari, zuhur jokatu nahi baitzuen, zer gerta ere.»	(11)
<b>muin egin</b> 'musu eman'	«Joan zen mariskala Gaztelako erregearen aurrera, eta ospakizun arranditsuetan, eskuan <b>muin egin</b> zion...»	(40)
<b>musu gorri</b> 'aurpegi gorria, bizia'	«Lo sakonean zen neskatila. <b>Musu gorria</b> , ile horia... aingeru bat ematen zuen, laino artean.»	(78)
<b>muturtu</b> 'haserretu, purrustaka jarri'	«...eta agintari karlista gehienak bere kontra zituen (...) bere aurka gogorki <b>muturturik</b> .»	(146)
<b>neronek</b> 'neuk, nihaurk'	«— Nik <b>neronek</b> ez, sekula ez dut berarekin hitz egin...»	(114)
<b>noraezean</b> 'helbururik gabe, galduta, jitoan'	«Gizonak, emakumeak, haurrak, etxeetatik kanpo zebiltzan, <b>noraezean</b> .»	(39)
<b>ohiki</b> 'sarritan, maiz'	«...afaltzeko zopak eta lekaleak jaten zituzten, babarrunak eta dilistak <b>ohiki</b> .»	(118)
<b>oldartu</b> 'erasoaldia, indarrez bultzatzea'	«Txiki eta Otaegiren hilketak salatzeako bilkuran poliziak egindako <b>oldartzeaz</b> ...»	(195)
<b>orbel</b> 'hosto ihartua'	«Belaunikatu eta esku artean hartu zuen umea. Hezurretan zegoen, eta udazkenean zuhaitzetik erortzen den <b>orbelaren</b> pisua zuen.»	(93)
<b>oren</b> 'ordua'	«...gizonezko bat sartu zen elizara, goizeko lehen <b>orenetan</b> .»	(92)
<b>oroitzapen</b> 'gomuta'	«Emakume usain ahaztuaren <b>oroitzapena</b> bizi-bizirik agertu zitzaion orduan.»	(19)
<b>oskarbi</b> 'zeru garbia'	«...argi handiko egunetan, <b>oskarbi</b> zenean, Auñamendietaraino hel zitekeen paisaiaren magia.»	(9)
<b>ospa egin</b> 'alde egin, joan'	«— Har iezaiezue mezua, eta <b>ospa egin</b> dezatela —agindu zion Antsok.»	(30)
<b>oste</b> 'armada, gudarostea'	«...lehenago jaso zuen Miramamolin erregearen mezu bat, Nafarroara <b>oste</b> bat bidaliko zuela esanez.»	(8)
<b>pagadi</b> 'pago basoa' (hayedo)	«Ernio azpiko <b>pagadi</b> baten erdian zuloa egin arreta handiz, eta berrogei fusil lurperatu zituen Manuel Santa Kruzek.»	(127)
<b>pagauso</b> 'uso migratzailea'	«Zerura begiratu, eta iparraldera zihoan <b>pagauso</b> talde handi bat ikusi zuen.»	(7)
<b>pairatu</b> 'jasan, sufritu'	«Nekez topa zitekeen errepresioa <b>paira</b> zezakeen ezkertiar gehiago...»	(186)
<b>pairatzerako</b> 'pairatu, sufritu baino lehen'	«Baina juntakideek ihes egin zuten eraso <b>pairatzerako</b> .»	(116)
<b>parada</b> 'abagunea, egokiera'	«Zatozte gurekin, eta gure buruzagiarekin egoteko <b>parada</b> izanen duzue.»	(117)
<b>paratu</b> 'jarri, kokatu'	«Egun hartan bertan, Arrano Beltzaren ordezt, Gaztelako ikurra <b>paratu</b> zuten Haroko Lopezen gizonek gotorlekuaren dorre nagusian.»	(25)



<b>patu</b> 'zoria, destinoa'	«Bazekien Dominiquek gillotina zela bere <b>patua</b> .»	(78)
<b>pesetero</b> 'diru zalea'	«Egoera horrek sutan jartzen zuen, bere herria arrotzek umiliatua ikustea (...) frantximentak nagusi alde batean, <b>pesetero</b> kristinoak bestean.»	(106)
<b>pil-pilean</b> 'bero-bero, bizi-bizi'	«Eztabaida politikoa ere <b>pil-pilean</b> zegoen.»	(197)
<b>pipiak janda</b> 'sitsak janda'	«...sasoi hartan ohartu zen Santa Kruz zenbateraino zegoen alderdi karlista barrutik <b>pipiak janda</b> ...»	(131)
<b>pitinka-pitinka</b> 'apurka-apurka'	«...haien lurrak murriztu eta lur frankoak, erregearen lurrak, zabaltzen ari zirelako <b>pitinka-pitinka</b> , Europa osoan...»	(10)
<b>planta</b> 'itxura'	«...udaleko aguazil bat agertu zen, urduritasun <b>planta</b> nabarmenarekin, alkatearen bila.»	(167)
<b>printza</b> 'argi izpia, distira'	«Goizeko eguzkiaren lehenengo <b>printzekin</b> batera, Nafarroako lurretan ziren.»	(81)
<b>puri-purian</b> 'bizi-bizi, modan'	«...zentral nuklearraren aurkako borroka ere <b>puri-purian</b> zegoen...»	(197)
<b>sikiera</b> 'behinik behin, behintzat, bederen'	«...blai-blai eginda, <b>sikiera</b> aitzineko egunetan pilatutako hautsa eta zikinkeria garbitzeko balio izan zien egun hartako bustialdiak.»	(88)
<b>sumatu</b> 'igerri, nabaritu'	«Aitzinera egin zuen Xahok. Jende artean sartu ahala, kuriositatez beterik, inguruan <b>suma</b> zitekeen guztiari erreparatzen zion.»	(102)
<b>supituki</b> 'bat-batean'	«...bota zuen Fernando Katolikoak <b>supituki</b> , mintzakide guztiak mahaiaren inguruan artean eseri ez zirela.»	(37)
<b>tenore</b> 'sasoia, ordua'	«Sufrimenduz beteriko gauaren ostean munduratu zen neskatala, ilunak argiari bide ematen dion <b>tenorean</b> , egunsentian.»	(73)
<b>triskantza</b> 'sarraskia, hilkuntza'	«Artilleria erabili ezinik, <b>triskantza</b> latza pairatu zuen Nafarroako erregearen aldeko armadak.»	(60)
<b>txapelgorri</b> 'herrialde zaindaria'	«Ez zituzten harreman errazak karlistek eta militarrek, <b>txapelgorriek</b> jartzen zituzten baldintza batzuk ez baitzituzten guztiz ontzat hartzen militar faxistek.»	(161)
<b>txunditurik</b> 'liluraturik, harriturik'	«...euskaraz, Euskal Herrairen hizkuntzan (...) Europako komunikazio tresnarik zaharrenean, <b>txunditurik</b> zuen euskaldunen izaeraren oinarritzko osagaian.»	(100)
<b>ufada</b> 'putzaldia'	«Hego haizearen <b>ufaden</b> xuxurla etengabea entzuten zen bazter orotan, irregularki, orain indarrez, orain leun.»	(39)
<b>ukuilu</b> 'gorta, abereen tokia'	« <b>Ukuilura</b> joan eta gero, eta etxeko atea ireki ostean Frantziako armadako gizonak ikusi zituen...»	(78)
<b>urduri</b> 'artega, lasaitasun barik'	«Maite zuen ibaia (...) eta lasaitu egiten zuen hura ikusteak, <b>urduri</b> edo etsita zegoenean.»	(164)
<b>ustezko</b> 'posiblea, litekeena'	«...Nafarroan ez ezik inguruko erresumetan ere entzuten ziren mairuen erregearen alabarekiko <b>ustezko</b> loturaren inguruko esamesak.»	(8)
<b>xede</b> 'helburua, asmoa'	«Anfontso VIII.aren <b>xedeak</b> , gainera, ez ziren Nafarroan ahitzen.»	(20)
<b>xuxurla</b> 'susmurra, ahots isila'	«Hego haizearen ufaden <b>xuxurla</b> etengabea entzuten zen bazter orotan, irregularki, orain indarrez, orain leun.»	(39)
<b>xuxurlatu</b> 'ahapeka esan'	«Aska zaitetz, eta aska nazazu! – <b>xuxurlatu</b> zion emakumeak, ondoko geletatik inor ohar ez zedin.»	(19)
<b>zakar</b> 'gogorra, desatsegina'	«Hego haize <b>zakarra</b> zebilen, eta barrenera itzultzea deliberatu zuten.»	(9)
<b>zeken</b> 'zikoitza, aprobetxatua'	«...emakume gazte bat bahitua zuten asmorik <b>zekenarekin</b> , ordura arte Nafarroa Behereko lurretan egiten ari ziren sarraski doilorren hari berean.»	(39)
<b>zer gerta ere</b> 'badaezpada'	«...momentuz ez zion jakinaraziko erabakia Abu Jakob enperadoreari, zuhur jokatu nahi baitzuen, <b>zer gerta ere</b> .»	(11)





<b>zerumuga</b> 'ostertz muga, horizontea'	«Gari galsoro berdeek betetzen zuten Gaztelako lurra, begia paratu eta <b>zerumugaraino</b> .»	(55)
<b>zintzur</b> 'pasabide estua'	«Hildakoen emazte eta seme-alaben negar-garrasien oihartzunak hedatzen ziren Bidasoa bazterreko mendi hegal eta <b>zintzur</b> estuetan.»	(149)
<b>ziplo</b> 'kolpean, brausta'	«Ondokoak, berriz, fusil baten ipurdiarekin jo zuen Jean buruan. <b>Ziplo</b> erori zen lurrera.»	(94)
<b>ziplo utzi</b> 'lotan, zurrun'	«Ardo kopa batean jarri zituzten zianuro tanta apurrek <b>ziplo utzi</b> zuten Iruñeko putetxe ezagun haren ohe gainean Mosen Boneta...»	(35)
<b>zurrumurru</b> 'esamesa'	«Nafar erregearen eta Abu Jakob enperadore mairuaren alabaren arteko balizko ezkontzaren <b>zurrumurrua</b> ahoz aho zebilen...»	(11)
<b>zurrunbilo</b> 'nahasmendua / zirimola, haize nahasia'	«Bizirik izanen al zen behinik behin... Pentsamenduen <b>zurrunbiloak</b> logura ekarri zion...»	(90)
<b>zutarri</b> 'euskarria, zutabea'	«Emakumea biluzik zegoen, etxearen <b>zutarri</b> bati eskuak loturik.»	(39)